

Jérôme Sueur

TXORIEN ENTZULE



ANIMALIEK LILURATURIK

“Ttikitan animalien portaerek liluratzten ninduten, geroago berriz musikak. Maluruski ez nuen hezkuntza musikalik jaso eta ez naiz musikari, dolu handi bat izan da hau. Lortu izan dut hala ere nire pasioak eta ekologia juntatzen soinuaren bidez, eko-akustikari esker. Naturan izatea, soinuak hurbilpen zientifiko baina sensible baten bidez entzutea sekulakoa da. Pasiozko lanbidea dut”.

“Oihan isila erdi hila dagoen oihana da”

Jérôme Sueurekin solastatzea abereen arteko harmoniaz kontzientzia hartzea da, baita gizakion egoismoa berriro ere berrestea. Eko-akustikaren sortzailea, paisaia natural batetik ateratako soinuak biltzen eta aztertzen dabil. Emaitzak ez dira airosak: iragan hurbila arte genuen soinu paisaia aberats eta anitza pobretuz eta isilduz doa. Abereen arteko komunikazio-sistemaz, gizakion zarataz, bien arteko bateraezintasunaz hitz egin digu.

 JENOFA BERTHOKOIRIGOIN  FRÉDÉRIC SÈBE

Oihanean sartu berri zara.

Jura eskualdean (Frantzia) izan gara, duela urtebete oihan batean instalaturiko magnetofonoen bila. Ordu laurdeno, minutu bat grabatu dugu. Datu meteorologikoak ere jaso ditugu eta oihanean soinuak zein distantziara hedatzen diren azertu.

Eko-akustika ez da bio-akustika.

Bio-akustika bigarren mundu gerlaren biharamunean agerturiko eremua dugu, komunikatzeko soinua erabiltzen duten animalien jokamoldeak aztertzen dituen. Nola sortzen eta jasotzen duten soinua eta zein informazio komunikatzen duten. Azken urteetan eremu berri bat garatu izan dugu: eko-akustika. Ekosistema bere osotasunean hartuz, paisaia natural batetik ateratako soinu guztiez interesatzen gara, galdera ekologikoak mahaigaineratuz.

Aldaketa klimatikoaren ondorioek bultzaturiko alorra da?

Ez. Animalien joerei baino gehiago gai ekologikoei sentibera nintzelako garrantzirikoa da. Bio-akustika ikasirik, eko-

logiari buruzko galderak jorratzeko erabili nahi izan dut. Ekologiaren arloko lankideekin egindako elkarlanaren emaitza da. Noski, xede berdintsuak dituzten beste batzuk ere badaude munduan.

Bernie Krause bio-akustikalari ospetsuak errana: 50 urtez naturako soinuen %50 desagertu dira.

Ez dakit nondik atera duen zifra hori. Bere eskalako ikuspegi historikoa du baina datu zientifikoak eskas ditugu zifra hau baieztatzeko.

Argi dena da soinuak desagertzen ari direla.

Hori segur da. Espezieak desagertzen ari dira eta haiekin batera haien soinuak. Haien habitataren sustsipenari lotua da.

Benetako komunikazio sistemak dira.

Soinu horien bidez informazioak transmititzen dituzte. Txorien kantuen bidez, usu, bada arra naiz edo emea, ugalketarako prest naiz edo ez, hemen bizi naiz... Bospasei, gehienik



“GIZAKION SOINURIK EZ IZATEA SOILIK IZAN DAITEKE ONURAGARRIA NATURARENTZAT”.

hamar bat informazio pasaratzen dituzte. Informazio horiek espeziearen bizi-raupenerako erabakigarriak dira, mutu bilakaraziz edo soinuak estaliz ez dute irauten. Ez dute gizakiok bezainbat informazio pasaratzen, baina komunikaturikoa hil ala bizikoa dute.

Dialektoak dituzte.

Animalia batzuek, batez ere itsas-ugaztunek ala txoriek ezberdintasunak dituzte tokika: azentuak, dialektoak dituzte. Espazioan bakartuak izaki, arrazoi ezberdinengatik denboran bestelakotzen dira soinuak eta belaunaldiz belaunaldi pasatuak dira. Hori erranik ere, Parisko elur-txoria eta hego-ekialdekoa elkar gurutzatuz gero ulertuko direla uste dugu.

Harmonia osatzen dute.

Soinu ingurumena estrukturatua dutela ohartzen gara, frekuentzien araberakoa edota unearen araberakoa. Krausek adibide mireagarriak entzunarazi dizkigu. Ez gara kakofonia batean. Baina hor ere, ez da beti horrela, batzuetan soinuak gainjarriak dira eta ikertu beharra dago zergatik. Agian nahasmendu bat dago ingurunean.

Eta gizakia dator bere soinu inposaturikoekin.

Soinu asko ekoizten ditugu, animalientzako zaratak direnak. Ez dira estrukturatuak eta beste soinuak estaltzen dituzte. Animalien komunikazioak nahasarazten dituzte, estresarazten dituzte, nekarazten.

Egokitzapen joerak ba ote dira?

Bai baina mugatuak. Espezie batzuek kantuak errepikatuko dituzte, beste batzuek ozenago edo zorrotzago abestuko dute. Baina guzti horrek muga morfologiko eta fisiologikoak ditu eta kostu energetiko handia. Beste batzuek alde egiten dute.

Gure zarata eta animalien komunikazioa, biak batera ezin.

Gizakion soinurik ez izatea soilik izan daiteke onuragarria naturarentzat. Soinurik ez izatea larria da, erran nahi delako ez dagoela kilkerrik, matxinsaltorik, txoririk, animaliarik. Oso larria da, oihanaren funtzionamenduan rol bat dutelako guztiek. Oihan isila erdi hila dagoen oihana da. Gertatu izan zait Portugaleko eukaliptus baso batean kausitzea; urrundik baso bat dirudi eta bertaratu eta ez dago ezer, ez dago soinurik, kultu-

rarik ez dagoelako, monokultura delako. Isiltasunaz gain, soinu paisaiaren homogeneizazioa ere badaukagu.

Erran nahi baitu?

Orotako espezieak daude, nahiko tolerantak. Baina espezie berezituak ere badaude, elikadura edota bizitoki berezi bati arras loturikoak, eta haien habitataren desagitea hilgarria zaie. Azkenean, orotako espezie horiek gelditzen dira.

Lanbide politikoa duzue.

Alarma pizten gabiltzala erran daiteke. Herritar eta zientifiko gisa, kezkarria da egoera. Baina gure ikerketa erabat objektiboa da, ageri denaren berri ematen dugu.

Nola irudikatzen duzu natura 2050 urtean?

Homogeneizazioa aurreikusten dut, espezie eta beraz soinu gutxiago eta maluruski geroz eta zarata humano gehiago. Erran bezala, Juran egon berri naiz. Genevako aireportua hurbil dute. Gure grabaketan %85 hegazkinen soinuak kutsaturikoa da. Ez dut uste joera hobetuz joango denik, alderantziz. ●